## HITZARMENA

Pasaiako udalerrian, 2023/05/18an

## BILDURIK

Alde batetik, Izaskun Gómez Cermeño andrea/ jauna, Pasaiako Udaleko alkatea (IFZ: P 2006900A).

Bestetik, NODAR BERMUDEZ JOSE MANUEL jauna/andrea (NAN: 15946940M), ASOCIACION VOLUNTAR PROTECCION CIVIL(r)(e)n ordezkaria (IFZ:G20781407).

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun beharrezkoa eta nahikoa aitortzen diote elkarri, eta hau

## ADIERAZTEN DUTE:

Udalerriek eskumenak dauzkate babes zibilaren arloan, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.f) artikuluarekin bat.

Halaber, eskumen hori udalerriei esleitzen zaie Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, eta arloko legerian: 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Bestalde, azpimarratu beharra dago azken

## CONVENIO

En el municipio de Pasaia, a fecha 18/05/2023

## REUNIDOS

De una parte, D./Dña. Izaskun Gómez Cermeño, alcalde/sa del Ayuntamiento de Pasaia, con NIF: P 2006900A.

Y de otra, D./Dña. NODAR BERMUDEZ JOSE MANUEL, con DNI n.º 15946940M, en representación de ASOCIACION VOLUNTAR PROTECCION CIVIL, con NIF G20781407.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad necesaria y suficiente para firmar el presente documento, y a tal efecto

## EXPONEN:

Que los municipios, ostentan competencias en materia de protección civil, de conformidad con el art. 25.2.f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Que así mismo, las citada competencia se atribuye a los municipios tanto en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, como en la legislación sectorial, DECRETO LEGISLATIVO 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias.

Resulta digno de destacar por otra parte, que

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

lege horrek honako hau xedatzen duela: Udalerriek babes zibila ematen parte hartuko dute, haien eskumen-eremuan eta lege honen printzipioak errespetatuz. Honako hauek dagozkie: babes zibileko udal-egituraren eraketa bultzatzea, udal-mugartean boluntarioen erakundeen eraketa bultzatzea.

esta última Ley dispone que los municipios participan en el desenvolvimiento de la protección civil, dentro del ámbito de la competencia propia, en la promoción de la creación de una estructura municipal de protección civil, promoviendo en particular la creación de organizaciones de voluntariado en el término municipal.

Bestalde, 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 61. artikuluan eta hurrengoetan honako hau xedatzen da: Euskal administrazio publikoek sustatuko dute Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sisteman sortzea herritarrek laguntzeko eta parte hartzeko sareak, langile profesionalen lana osatzeko, baina ez ordezkatzeko, boluntariotza gisa; horretarako, hauek baliatuko dira: babes zibileko udal-egiturari lotutako Euskadiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak.
Alderdi horiek garatuta daude urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuan, larrialdien arretarako euskal sisteman herritarrek borondatez parte hartzeari buruzkoan.

Por otra parte, los artículos 61 y siguientes del DECRETO LEGISLATIVO 1/2017 disponen que las administraciones públicas vascas fomentarán la creación de redes de apoyo y participación ciudadana en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil como voluntariado para complementar, pero no sustituir, la labor del personal profesional, a través de las organizaciones locales de voluntarios y voluntarias de protección civil de Euskadi asociadas a la estructura municipal de protección civil.

Lege beraren 63. artikuluan honako hau eransten da: Administrazio publikoek babes zibileko boluntarioen erakundeen garapena eta hornikuntza sustatuko dituzte, eta, horretarako, haien prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dituzte; era berean, Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko prebentzioko zeregin eta zeregin operatiboetan boluntarioen

Dichos aspectos se desarrollan en el Decreto 204/2010, de 19 de enero, sobre la participación voluntaria de la ciudadanía en el sistema vasco de atención de emergencias.
El artículo 63 del mismo cuerpo legal añade que las administraciones públicas promoverán el desarrollo y equipamiento de las organizaciones del voluntariado de protección

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

erakunde bateko eskubide osoko kide boluntario gisa parte hartzeko, Eusko Jaurlaritzan babes zibilaren eta larrialdien arloan eskumena duen agintaritzak akreditatuta egon beharko da; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak txostena egin ondoren Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, zeregin horiek gauzatzeko ezartzen dituen curriculum-gaitasunak eduki beharko dira.

civil, fomentando su formación y capacitación, y que la participación en tareas preventivas y operativas de protección civil y atención de emergencias como miembro voluntario de pleno derecho de una organización del voluntariado requerirá estar acreditado por la autoridad del Gobierno Vasco competente en materia de protección civil y emergencias, para lo cual deberá disponer de las competencias curriculares que para ejecutar tales labores se determinen reglamentariamente por el Gobierno Vasco, previo informe de la Comisión de Protección Civil de Euskadi.

Pasaiako Udalbatzak 2018ko apirilaren 24an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen Pasaiako Larrialdi Plana, Larrialdien Kudeaketa Legean ezarritakoa betez.

En sesión del Pleno del Ayuntamiento de Pasaia de 24 de abril de 2018 se aprobó con carácter definitivo el Plan de Emergencia Municipal de Pasaia, dándose así cumplimiento a lo establecido en la propia Ley de Gestión de Emergencias.

Pasaiako Udalaren 2023ko aurrekontuan jasota dago elkarte horri diru-laguntza izenduna emateko partida bat. 03.481.02.132.01 HITZARMENA BABES ZIBILA PROTECCIÓN CIVIL bolondresak izeneko partidak 3.050,00 euroko kreditua du.

Que en el presupuesto del Ayuntamiento de Pasaia para el ejercicio 2023 figura una partida presupuestaria correspondiente a una subvención nominativa a conceder a la citada asociación. Que la citada partida presupuestaria 03.481.02.132.01 HITZARMENA BABES ZIBILA PROTECCIÓN CIVIL bolondresak tiene un crédito que asciende 3.050,00 euros.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28.1. artikuluan

Que de conformidad con lo previsto en el

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

aurreikusitakoarekin bat, hitzarmenak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan aurreikusita dauden diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresna, betiere kontuan hartuta diru-laguntza horiek arautzen dituzten arauek ezartzen dutena.

Bestalde, Procivil Pasaiako Babes Zibileko Boluntarioen Elkartea Euskal Herriko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, AS/G/09516/200 erregistro-zenbakiarekin, espedientean jasota dagoen bezala. Espedientean jasota daude, halaber, elkartearen estatutuak, eta horietan ezartzen da elkarte horren helburua honako hau dela: Pasaiako Udalarekin elkarlanean aritzea, arrisku larri, hondamen edo ezbehar publikoetan edo antzeko larrialdi egoeretan sortutako kalteak daudenean pertsonen eta ondasunen babesaren alorrean prebentzioa eta ekintzak koordinatzen direla bermatzeko. Horretarako hainbat jarduera garatuko ditu, hain zuzen ere, egoera horiek saihesteko, beren ondorioak arintzeko, kalteak konpontzeko eta, egoki denean, horiek sorrarazteko arrazoiak zuzentzen laguntzeko jarduerak. Era berean, Pasaiako udalerrian egiten diren ekitaldi publikoetan laguntza ematea: jaietan, su-festetan, jendaurreko ikuskizunetan, kirol probetan...

artículo 28.1. de la Ley Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, o en los de las corporaciones locales.

Que por su parte, la entidad Procivil, Asociación de Voluntarios de Protección Civil de Pasaia, es una organización inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco con el número de registro AS/G/09516/2001, tal y como consta en el expediente. Constan así mismo en el expediente los estatutos de la citada asociación, disponiendo los mismos que la citada asociación tiene como finalidad la colaboración con el Ayuntamiento de Pasaia, para actuar en la coordinación preventiva y operativa respecto de la protección de personas y bienes ante los daños producidos por las situaciones de emergencia en los casos de grave riesgo, catástrofe o calamidad pública, mediante la realización de actividades aque permitan evitar las mismas, reducir sus efectos, reparar los daños y, en su caso, contribuir, junto con los estamentos pertinentes, a corregir las causas productoras de los mismos, así como en la colaboración en todos aquellos eventos públicos que se puedan realizar en el municipio de Pasaia (fiestas patronales, fuegos artificiales,

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

espectáculos públicos, pruebas deportivas, etc..

Pasaiako Udalak eta ASOCIACION VOLUNTAR PROTECCION CIVIL(e)k hitzarmen hau gauzatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

El Ayuntamiento de Pasaia y ASOCIACION VOLUNTAR PROTECCION CIVIL acuerdan la firma de este convenio, con base a las siguientes

## KLAUSULAK

**LEHENA: Lankidetza-hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea pertsonak, ondasunak eta ingurumena babestea da, larrialdi eta hondamendi mota guztien aurrean erantzun egokia bermatuz. Halaber, udal langileei lagundu eta sostengua ematea premia egoeretan.

Hitzarmen honek Pasaiako Udalaren eta Procivil Babes Zibileko Boluntarioen Elkartearen arteko lankidetza esparrua arautzen du, baita Udalak elkarte horri eman beharreko diru-laguntza ere.

Udalaren jabetzako materiala, ekipamendua eta ondasunak Udalari lagatzen dizkio.

Ondasun horien lagapenari aplikatu beharreko

## CLÁUSULAS

**PRIMERA: Objeto del convenio de colaboración**

El objeto del presente convenio tiene por objeto proteger a las personas, los bienes y el medio ambiente, garantizando una respuesta adecuada ante los distintos tipos de emergencias y catástrofes. Así mismo como, colaborar y apoyar al personal municipal en situaciones de necesidad.

Este convenio regula el marco de colaboración entre el Ayuntamiento de Pasaia y Procivil, Asociación de Voluntarios de Protección Civil de Pasaia, además de la canalización de una subvención a otorgar por el Ayuntamiento a la citada asociación.

Se relaciona el material, equipamiento y bienes que aun siendo propiedad del Ayuntamiento, éste cede a la Asociación.

Se regula también el establecimiento del

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

araubidea eta baldintzak ere arautzen dira.

**BIGARRENA: Diruz lagun daitezkeen gastuak:**

Babes Zibileko Zerbitzuarekin zuzenean lotutako jardueren ondoriozko gastuak, 2023 urtean sortu eta ordaindutakoak, diruz lagunduko dira, hala nola:

- Ibilgailuen erosketa, mantentze-lanak eta erregaia.
- Hainbat material eta kontsumigarri erostea.
- Mantenu gastuak zerbitzuan zehar.
- Ibilgailuen eta langileen aseguruak kontratatzea.
- Pertsonak, ondasunak eta ingurumena babestearekin zuzenean lotutako beste zerbitzu batzuk.

**HIRUGARRENA: Aurrekontu zenbatekoa eta kreditua.**

Diru-laguntza 3.050 eurokoa da, eta kreditu hori esleituta dago Pasaiako Udalean indarrean dagoen 2023ko aurrekontuko 03.481.02.132.01 *HITZARMENA BABES ZIBILA PROTECCIÓN CIVIL* bolondresak partidan.

Pasaiako Udalak ematen duen diru-laguntza hori hitzarmen honen xede diren jarduerak

régimen y condiciones aplicables a la cesión de dichos bienes.

**SEGUNDA: Gastos subvencionables**

Se subvencionarán los gastos derivados de las actividades directamente relacionadas con el servicio de Protección Civil, generados y sufragados en el año 2023 como:

- Compra, mantenimiento y combustible de vehículos.
- Compra de material y consumibles diverso.
- Gastos de manutención durante el servicio.
- Contratación de seguros de sus vehículos y de su personal.
- Otros servicios relacionados directamente con la protección a las personas, los bienes y el medio ambiente.

**TERCERA: Cuantía y crédito presupuestario**

La cuantía de la subvención asciende a 3.050 euros, cuantía coincidente con el crédito consignado para la partida presupuestaria 03.481.02.132.01 *HITZARMENA BABES ZIBILA PROTECCIÓN CIVIL bolondresak* del vigente Presupuesto General del Ayuntamiento de Pasaia para el ejercicio 2023.

La subvención que otorgue el Ayuntamiento de Pasaia deberá destinarse necesariamente a la financiación de las actividades para las cuales

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

finantzatzeko erabili behar da, horretarako ematen baita.

se otorga la subvención y que son objeto del presente convenio.

**LAUGARRENA: Udalak lagako dituen ondasunak, materialak eta ekipamenduak**

Udalak I. ERANSKINEAN zerrendatutako material, ondasun eta ekipamenduen erabilera lagatzen dio Pasaiako Babes Zibileko Boluntarioen Elkarteari.

Lagatako materialen artean Seat Altea 0641-JBF ibilgailua dago, Pasaiako Udalaren izenean, eta Udaltzaingoaren soberakina, indarrean dagoen aseguruarekin eta IATarekin entregatzen dena.

Udalak, jabe gisa, bere gain hartuko ditu aseguruaren eta IATaren berrikuspenaren gastuak, eta Babes Zibilaren erantzukizuna izango da Elkarteko kideek erabiltzeagatik sor daitezkeen matxurak eta salaketak.

Ondasun horiek Pasaiako Udalaren jabetzakoak dira, eta hark edozein unetan berreskura ditzake, herri onurako edo zerbitzu publikoko arrazoiengatik; eta elkarteak ondasun horiek berehala itzuli beharko ditu, Udalak eskaera egin ondoren.

Hala badagokio, eta elkarteak horretarako

**CUARTA: Bienes, material y equipamiento objeto de cesión por el Ayuntamiento**

El Ayuntamiento cede el uso de los materiales, bienes y equipamiento que se relacionan en el ANEXO I de este convenio a la Asociación de Voluntarios de Protección Civil de Pasaia.

Entre los materiales cedidos se encuentra el vehículo Seat Altea 0641-JBF, a nombre del Ayuntamiento de Pasaia, y excedente de la Guardia Municipal, que es entregado con seguro e ITV en vigor.

El ayuntamiento como propietario se hará cargo de los gastos de seguro y revisión ITV, siendo responsabilidad de Protección Civil, las averías y posibles denuncias originadas por su uso por miembros de la Asociación.

La propiedad de los citados bienes corresponde al Ayuntamiento de Pasaia, pudiendo este en cualquier momento recobrar la posesión de aquéllos por motivos de interés público o servicio público, estando obligada la Asociación a la devolución o puesta a disposición de los citados bienes de manera inmediata, previo requerimiento al efecto del ayuntamiento.

En su caso, y previa solicitud cursada al efecto

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

eskaera egin ondoren, Udalak elkarteari ibilgailuren bat utz diezaioke inoiz, elkarteak Udalari laguntzeko behar duen materiala garraiatzeko, betiere lankidetza hori Udalak eskatu badu.

por la asociación, el Ayuntamiento podrá ceder puntualmente a la asociación algún vehículo, a los efectos de transportar el material necesario para que la asociación pueda desempeñar las labores de colaboración con el Ayuntamiento, y siempre que la citada colaboración se haya solicitado por el Ayuntamiento.

Halaber, Udalak elkarteari beste ondasun edo ekipamendu batzuk utz diezazkioke, udal arduradunek horretarako baimena eman ondoren.

Asimismo, el Ayuntamiento podrá ceder a la Asociación otros bienes u equipamiento que ésta precise, previa autorización de los responsables municipales.

Elkarteak honako alderdi hauek bete beharko ditu, lagatzen zaizkion ondasunak erabiltzeko garaian:

La asociación deberá cumplir los siguientes aspectos en relación a los bienes cuyo uso le será cedido:

- Ondasunak lagatzen zaizkion helbururako erabili, egoera onean mantendu eta, hala badagokio, konpondu.

- Usar los bienes de conformidad con su destino natural, y conservarlos en adecuadas condiciones de mantenimiento, así como en su caso, proceder a su reparación.

- Ondasunak lagatzen zaizkion egoera berean itzuli, alde batera utzita denboraren poderioz gertatzen diren narriadurak.

- Devolver los bienes en el mismo estado en que se cedieron, dejando a salvo los deterioros que se produzcan por el normal transcurso del tiempo.

- Ondasunak suntsitu edo galduz gero, Udalari horien balioa ordaindu beharko zaio.

- En el caso de destrucción o pérdida de los bienes, deberá abonarse al Ayuntamiento el valor de los mismos.

Halaber, elkarteak udalak lagatako lokal bat du Trintxerpeko azokaren lehen solairuan. Azokako eskailerak igo eta ezkerretara dagoen

Asimismo, el Ayuntamiento tiene cedido a la Asociación un local municipal en la primera planta del mercado de Trintxerpe. Dicho local

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

lehen atean dagoen lokala, hain zuzen ere. Lokal edo gela horrek (Pasaiako Udaltzaingoaren egoitza izandakoak) badu beste sarbide bat ere: azokako lehen solairuko komunen ondoan dagoen atetik.

corresponde a la primera puerta a la izquierda después de subir las escaleras de acceso a dicho mercado. Este local o dependencia (antigua inspección de la Udaltzaingoa de Pasaia) tiene también acceso por la puerta sita junto a los servicios (WC) de la primera planta del mercado.

Era berean, elkarteak materiala gordetzeko lokal bat du azokaren sotoan, zehazki, jaitsi eta berehala eskuinean dagoen lokala.

Asimismo, dicha Agrupación tiene cedido un local para la guarda de material en el sótano del citado Mercado, y más concretamente el situado en primer lugar bajando a la derecha.

Pasaiako Ondasunen Inbentarioan lokal horiek 2.20 epigrafearen barruan daude, hau da: azoka eta aparkalekuari dagokion epigrafean.

Los citados locales se encuentran en el edificio con epígrafe 2.20 "Mercado y Aparcamiento" del Inventario de Bienes del Ayuntamiento de Pasaia.

Ondasunen lagapena herri administrazioei aplikagarri zaien ondareari buruzko araudiarekin bat egingo da.

En lo que respecta a la cesión de bienes, regirá la normativa de patrimonio aplicable a las Administraciones Públicas.

Espedientean jasota dago elkartearen beraren material zerrenda.

Consta en el expediente el inventario del material propio de la Asociación.

**BOSTGARRENA: Pasaiako Babes Zibileko Boluntarioen Elkartearen betebeharrak.**

- Pasaiako Udal Larrialdi Planaren garapenean eta babes zibileko jardueretan parte hartu, elkartearen gaitasunaren eta dituen bitartekoen arabera; planean eta honako lege hauetan aurreikusitakoarekin bat: Larrialdiak

**QUINTA: Obligaciones de la Asociación de Voluntarios de Protección Civil de Pasaia**

- Participar en en desarrollo del Plan de Emergencia Municipal de Pasaia y en las actividades de protección civil, en la medida de su capacidad y medios disponibles, y en atención a lo previsto en el propio Plan, así

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretua; eta 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, larrialdien arretarako euskal sisteman herritarrek borondatez parte hartzeari buruzkoa.

como en el DECRETO LEGISLATIVO 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias y el Decreto 204/2010, de 19 de enero, sobre la participación voluntaria de la ciudadanía en el sistema vasco de atención de emergencias.

- Horretarako, udalari laguntza emango diote, udalak hala eskatzen duenean, dituzten baliabideen arabera, udalak antolatzen dituen kultur, kirol edo bestelako jarduеretan, indarreko araudiek ematen dizkioten eskumenen esparruan. Adibidez, eta zehatz-mehatz hartu gabe: herrietako jaiak, Gabonak, Inauteriak, Jai Batzordeak antolatutako jarduerak... Elkartearen lankidetza beti Pasaiako Udaltzaingoari laguntza emanez gauzatuko da, eta Udaltzaingoaren jarraibideak bete beharko dituzte, beharrezkoa denean.

- A tal fin, deberán prestar su colaboración al ayuntamiento, cuando este se lo requiera, y en función de la disponibilidad y medios con que cuente la asociación, en actividades culturales, deportivas y otro tipo de actividades y eventos que el ayuntamiento organice en el marco de las competencias que le son atribuidas por la normativa vigente. A modo de ejemplo, y sin carácter exhaustivo: fiestas patronales, navidades, carnaval, actividades organizadas por la comisión de fiestas etc. La colaboración de la asociación se realizará en todo caso prestando su apoyo a la Policía Municipal de Pasaia, y bajo sus indicaciones cuando sea preciso.

- Dagokion agintariaren menpe geratuko da babes zibileko boluntarioen lana, istripuak, hondamendiak edo lazeria publikoak izanez gero. Errefortzua edo laguntza ematera mugatuko dira oro har, eta, hala egokituz gero, profesionalek edo funtzionarioek osatutako zerbitzu publikoen ordezkotza subsidiarioa egingo dute.

- La actuación del voluntariado de protección civil en caso de accidentes, catástrofes o calamidades públicas se desarrollará bajo la dependencia funcional de la autoridad correspondiente, y como regla general se constreñirá a servir de refuerzo o colaboración y, en su caso, de suplencia subsidiaria de los servicios públicos integrados por profesionales

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

o funcionarios.

- Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko lan prebentibo eta eraginkorretan erabateko boluntario gisa parte-hartzeko, beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzan babes zibilaren eta larrialdien arloan eskumena duen agintaritzaren egiaztapen-agiria izatea; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak txostena egin ondoren Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, zeregin horiek gauzatzeko ezartzen dituen curriculum-gaitasunak eduki beharko dira.

- La participación en tareas preventivas y operativas de protección civil y atención de emergencias como miembro voluntario de pleno derecho de una organización del voluntariado requerirá estar acreditado por la autoridad del Gobierno Vasco competente en materia de protección civil y emergencias, para lo cual deberá disponer de las competencias curriculares que para ejecutar tales labores se determinen reglamentariamente por el Gobierno Vasco, previo informe de la Comisión de Protección Civil de Euskadi.

- Pasaiako Udalari jakinarazi beharko zaio jarduera horretarako edo elkartearen finantziaziorako beste erakunde edo administrazio publiko nahiz pribatu batetik diru-laguntza jaso izana.

- Comunicar al Ayuntamiento de Pasaia la obtención de otras ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración o entidad, tanto pública como privada, así como las que financien su funcionamiento ordinario.

- Diruz lagundutako jardueran aldaketaren bat (objektiboa nahiz subjektiboa) egin nahi izanez gero, idatziz jakinarazi beharko dute, eta dagokion sailaren erantzunaren zain egon beharko dute, aldaketa hori egin ahal izateko.

- Comunicar, por escrito, la variación o modificación, tanto objetiva como subjetiva, que pretendan efectuar en la actividad subvencionada, debiendo esperar la respuesta del correspondiente Departamento para realizarla.

- Pasaiako Udalaren babesa dutela adierazi beharko dute diruz lagundutako jarduerari buruzko publizitate guztian.

- Hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Pasaia en toda publicidad que se realice de la actividad subvencionada.

- Udal Kontu-hartzailetzak eta dagokion udal

- Someterse al control y actuaciones de comprobación por parte de la Intervención

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

sailak edo arloak, diru-laguntzaren izaeraren arabera, diru-laguntzaren egiaztatze- eta kontrol-jarduketak egingo dituzte.

- Egiaztatze- eta kontrol-eginkizunerako udalak eskatzen dion informazioa eman beharko du elkarteak.

- Gutxieneko kontabilitatea egin eta gastuen egiaztagiriak eta kontabilitateko gainerako egiaztagiriak gorde.

municipal y el correspondiente Departamento o Área municipal según la naturaleza de la subvención.

- Aportar la información que el Ayuntamiento les requiera para su labor de control y comprobación.

- Llevar una mínima contabilidad y conservar los justificantes de gastos y demás justificación contable

**SEIGARRENA: Hitzarmenaren epea eta iraunaldia.**

Hitzarmen hau indarrean egongo da bi ekitalditan; eta 2023ko abenduaren 31n bukatuko da. hitzarmeneko aurreikuspenak aplikatuz sortutako alderdi bakoitzaren betebeharrek iraun dezaketen arren.

**SEXTA: Plazo y vigencia del convenio.**

La vigencia del presente convenio será anual y se extenderá desde la fecha de la firma hasta el 31/12/2023, sin perjuicio de que perduren las obligaciones de cada una de las partes nacidas en aplicación de las previsiones del convenio.

**ZAZPIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta erak.**

Diru-laguntza era honetara ordainduko da:

% 80 hitzarmena sinatzen denean.

Gainerako % 20a, aldez aurretik justifikatuta.

Ordainketa entitate onuradunaren banku-kontura transferentzia eginez egingo da,

**SÉPTIMA: Plazos y modos de pago de la subvención,**

El pago de la subvención se realizará de la siguiente forma:

El 80% de la subvención, una vez firmado el convenio por ambas partes.

El 20% restante, previa justificación de la misma.

El pago se efectuará, mediante transferencia a la cuenta bancaria de la entidad beneficiaria

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

- Udalak diruz lagundutako jardueretako gastuen jatorrizko fakturak (edo kopia konpultsatuak).
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren urteko memoria zehatza.
- Gastu eta sarreren balantzea, eta gastu eta sarreren jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, ematen zaien diru-kopuruari dagozkionak.
- Jarduera iragartzeko egin diren kartel, egitarau, publikazio eta gainerako agiri grafiko eta idatzien kopia bana.
- Zinpeko aitorpena, xede bererako diru-laguntzarik jaso den ala ez adieraziz, administrazio publikoetatik edo izaera publikoko edo pribatuko edozein erakundetatik. Diru-laguntzarik jaso izan bada, zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.

que ésta determine, una vez presente la siguiente documentación:

- Facturas originales (o copias compulsadas) de los gastos de las actividades subvencionadas por el Ayuntamiento.
- Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
- Memoria anual detallada de la actividad o actividades subvencionadas.
- El balance de gastos e ingresos, así como las facturas originales, o fotocopias compulsadas, de los gastos e ingresos por el importe de la cantidad concedida.
- Un ejemplar de los carteles, programas, publicaciones y cuanta documentación, gráfica y escrita, haya sido elaborada para la publicidad de la actividad en cuestión.
- Declaración responsable indicando si se han obtenido o no subvenciones para la misma finalidad de otras administraciones públicas o de entidades públicas o privadas de cualquier naturaleza, indicando, en el caso de que se hubieran obtenido, su origen y cuantía.

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

Gastuak faktura eta merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak diren agiri frogagarrien bidez egiaztatuko dira.

Los gastos se acreditarán mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.

**ZORTZIGARRENA: Onuradunak jasotako diru-laguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzeko epea eta era.**

**OCTAVA: Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.**

Egiaztatze hori hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko da.

La justificación se efectuará como máximo antes del día 31 de enero del siguiente ejercicio.

**BEDERATZIGARRENA: Diru-laguntza itzultzeko arrazoiak.**

**NOVENA: Causas de Reintegro.**

Udalak diru-laguntza gisa ordaindutako zenbatekoak eta berandutze-interesak (diru-laguntza ordaindu zenetik hura itzultzeko erabakia hartzen denera artekoak) itzultzeko eska dezake, honako egoeraren bat gertatuz gero:

El Ayuntamiento podrá exigir la devolución de las cantidades abonadas en concepto de subvención y de los intereses de demora desde el momento del pago de la subvención hasta el momento en que se acuerde el reintegro, cuando medie alguna de las siguientes circunstancias:

a) Diruz lagundutako jarduera burutu ez bada edo funtsezko aldaketaren bat izan badu, dagokion departamentuak jakin eta onartu gabe.

a) Cuando no se haya llevado a cabo la actividad subvencionada o se haya producido un cambio sustancial de la misma sin previo conocimiento y acuerdo con el Departamento que la haya concedido.

b) Diru-laguntza izendatutako jarduerarako ez baizik eta beste zerbaiterako erabili izan bada.

b) Cuando se haya dado a la subvención un uso distinto de aquel para el que fue concedida.

c) Publizitateetan Pasaiako Udalaren

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

babesletza jasotzen ez bada.

d) Jasotako diru-laguntza egiaztatzeko agiriak adierazitako epean aurkezten ez direnean.

e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluko lehenengo zenbakian aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik. Jasotako diru-laguntzak itzultzeko betebeharra, egin ditzaketen arau-hausteetatik independente da.

c) Cuando en el material publicitario se obvie el patrocinio del Ayuntamiento de Pasaia

d) Cuando no se haya presentado en el plazo indicado la documentación requerida para la justificación de la subvención recibida.

e) Cualquier otra causa prevista en el número 1º del art. 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. El deber de reintegro de las subvenciones obtenidas es independiente de las infracciones en que pudieran incurrir.

**HAMARGARRENA: Euskarari eta genero-berdintasunari buruzko baldintzak.**

Hizkuntza baldintzak

- Euskararen presentzia bermatuko da Pasaiako Babes Zibileko Boluntarioen Elkarteak argitaratutako idatzietan eta elkartearen ageriko elementuetan.

- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoarekin bat, bai elkarte horrek antolatzen dituen jendaurreko ekitaldiak, eta bai argitaratzen dituen idatzi, iragarki, propaganda, publizitate eta antzekoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, eta beti lehentasuna emango zaio euskarari.

Generoari dagozkion baldintzak

**DÉCIMA: Condiciones relativas al euskera y a la igualdad de género**

Condiciones lingüísticas

- Se garantizará la presencia del euskera en los elementos visibles y en los escritos publicados por la Asociación de Voluntarios de Protección Civil de Pasaia.
- Cumpliendo con lo dispuesto en la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera, tanto los actos públicos organizados por la asociación como los escritos, anuncios, propaganda, publicidad y similares publicados por la misma se presentarán en euskera o en euskera y castellano, anteponiendo siempre el euskera.

Condiciones respectivas al género

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

Elkarteak emakume eta gizonen aukera-berdintasuna bermatuko du, eta baita elkartean dagoen aniztasuna ere, antolatutako jendaurreko ekitaldietan eta elkarteak argitaratutako idatzietan, iragarkietan, propagandan eta publizitatean.

La asociación garantizará la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres así como la diversidad existente en la sociedad, en los actos públicos organizados y en los escritos, anuncios, propaganda, publicidad y similares publicados por la asociación.

**HAMAIKAGARRENA: Bateragarritasuna helburu bererako jasotako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin.**

Diru-laguntza hau bateragarria izango da xede bererako ematen diren bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, baldin eta beste edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatuk, edo bertako, edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundek emana bada. Hala ere, diru-laguntza edo laguntza horiek arautzeko araudiek besterik ezar lezakete.

Nolanahi ere, Diru-laguntzei buruzko Legearen 19.3. artikuluarekin bat, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**UNDÉCIMA: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad,**

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

No obstante, conforme al artículo 19.3 de la LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**HAMABIGARRENA: Aplikatu beharreko araubide juridikoa.**

Hitzarmen honetan ondorengo lege eta

**DOCEAVA: Régimen Jurídico de Aplicación.**

Serán de aplicación al presente convenio Ley

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

dekretuak izango dira ezarri beharrekoak: diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta hori garatzen duen erregelamendua; Pasaiako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra; 1/2007 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena; urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretua, larrialdien arretarako euskal sisteman herritarrek borondatez parte hartzeari buruzkoa; eta toki-araubideko arau ezargarriak. Halaber, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ezarriko dira eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia, así como el DECRETO LEGISLATIVO 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias, y el Decreto 204/2010, de 19 de enero, sobre la participación voluntaria de la ciudadanía en el sistema vasco de atención de emergencias, además de la normativa de régimen local que resulte de aplicación. Serán también de aplicación las restantes normas de derecho administrativo, y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Hitzarmen honetatik erator litezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatziko dira, hitzarmenaren izaera juridiko-administratiboa dela eta.

Respecto a las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Eta bien aldetik adostasuna adierazteko, hitzarmengileek idatziz jasotzen dute agiri hau, edukia baieztatzen eta berresten dute, eta hiru kopiatan eta ondorio bakarrerako sinatzen dute.

Y, en prueba de conformidad, ambas partes recogen por escrito este documento, se afirman y ratifican en su contenido y lo firman por triplicado y a un solo efecto.

**PASAIAKO ALKATEA**

**ASOCIACION VOLUNTAR PROTECCION CIVIL**

Izpta.: Izaskun Gómez Cermeño

Izpta.: NODAR BERMUDEZ JOSE MANUEL

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

| **I. ERANSKINA** | **I. ANEXO** |
|---|---|
| **PASAIAKO UDALAREN MATERIALAREN INBENTARIOA** | **INVENTARIO DE MATERIAL DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA** |
| UNIFORMEAK | UNIFORMIDAD |
| 9 udako polo laranja.<br>9 galtza taktiko urdin.<br>9 neguko polar laranja.<br>9 neguko kazadora laranja.<br>9 bota taktiko.<br>9 txapel.<br>9 gerriko taktiko.<br>9 ebakien aurkako eskularru.<br>9 ur-jantzi. | 9 Polos verano naranja .<br>9 Pantalones tácticos azul .<br>9 Polares invierno naranja .<br>9 Cazadoras naranja invierno.<br>9 Botas tácticas.<br>9 Gorras.<br>9 Cinturones tácticos.<br>9 Guantes anti corte.<br>9 Trajes de agua. |
| MUGIKORTASUNA | MOVILIDAD |
| 1 Erde atoi txiki. | 1 Remolque pequeño Erde. |
| UHOLDEAK | INUNDACIONES |
| Motobonba autonomo 1 bere osagaiekin.<br>5 uretako bota pare.<br>6 metroko zodiaka (erabilezin bihurtua). | 1 Moto bomba autónoma con sus componentes.<br>5 Pares botas de agua.<br>1 Zodiak 6 metros ( inutilizada ). |
| SUA | FUEGO |
| 5 suaren aurkako buzo (baso-suteetarako).<br>4 kearen aurkako maskara (filtrorik gabeak).<br>3 mauka (45ekoak).<br>3 mauka (25ekoak).<br>2 lantza (45ekoak).<br>2 lantza (25ekoak).<br>2 erreduktore: 45 - 25 / 25 - 45<br>2 ukondo luzagailu (45ekoak).<br>12 su-astingailu.<br>16 pala.<br>Ahuntz-hanka 1.<br>Borra 1.<br>3 pikotx.<br>Hagatxoak ebakitzeko zizaila 1. | 5 Buzos semi - ignífugos incendio forestal.<br>4 Mascaras anti humo ( sin filtros).<br>3 Mangueras 45.<br>3 Mangueras 25.<br>2 Lanzas de 45.<br>2 Lanzas de 25.<br>2 Reductores 45 - 25 / 25 - 45<br>2 Codos alargadera de 45.<br>12 Bate fuegos.<br>16 Palas.<br>1 Palanca pata de cabra.<br>1 Porra.<br>3 Picos.<br>1 Cizalla corta-varillas manual. |
| TRAFIKOA | TRÁFICO |
| Zenbait seinale.<br>8 seinalizazio-kono. | Señalizaciones varias.<br>8 Conos señalización. |
| MATERIAL ELEKTRIKOA | MATERIAL ELÉCTRICO |

ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f

| | |
|---|---|
| Sorgailu 1.<br>4 argiztapen-foku alogeno.<br>2 tripode, fokuei eusteko.<br>25 metroko luzagailu elektriko 1. | 1 Generador.<br>4 Focos halógenos iluminación.<br>2 Trípodes soporte focos.<br>1 Alargadera conexión eléctrica 25 metros. |
| KOMUNIKAZIOAK | COMUNICACIONES |
| Interneteko lotura duen ordenagailu 1.<br>Telefono 1 zentralean (loturarik gabea). | 1 Ordenador con conexión a Internet .<br>1 Teléfono en central ( sin conexión ). |




Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8ac3569b-d5e2-458c-872f-c427e051918f**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***